

EPATEGIAK. Duela lau urte Zarautzen manifestazio batean zihoazela ertzainei mehatxu egitea leporatu zieten

Urtebeteko zigorra duten hiru lagun espetxeratzeko agindu du epaileak

Donostiako Zigor Epaitegiaren erabakia ez dela legean oinarritua salatu dute AABek

Imanol Murua Uribe | DONOSTIA

Duela lau urteko gertaera batzuegatik urtebeteko espetxe zigorra duten Zarauzko hiru lagun espetxean sartzeko agindu zuen atzo Donostiako Entzutegiak. Hiru zigortuek—Maria Jesus Zumeta (48 urte), Jon Mikel Gastañares (28) eta Mikel Anjel Usobiaga (53)—ez dute zigor aurrekaririk eta, jasoa duten zigorra bi urtetik beherakoa denez, kartzelatzea ez betetzea aurreikusten du Zigor Kodeak. Gastañares EHko zinegotzia da gaur egun, eta Zumeta zinegotzia zen gertaeren garaian, orain lau urte.

1997ko martxoaren 31n 'Euskal Herria Askatu' ekimenaren manifestazioa egin zen Zarautzen. Amnistiaren Aldeko Batzordeek prentsa ohar batean atzo azaldu zuten, kalez jantzitako bi ertzainek manifestazioari jarraitu zioten, eta une batean lau manifestatzailei identifikatzeko eskatu zieten: ertzainak iraintzea leporatu zieten Gastañares eta Usobiagari, eta mehatxu egitea Zumetari. Azken hau atxilotu ere egin zuten.

Lau akusatuei epaiketa egin zieten joan den urtean Donostiako Zigor Epaitegian eta, «intimidazio larria» zela eta «autoritateko agenteen aurkako aten-

tatua» leporatu zieten lauei, eta urtebeteko espetxe zigorra ezarri bakoitzari. Entzutegi Probintzian helegitea ezarri, eta, akusatuetako bat absolbitu zuten arren, Zumeta, Gastañares eta Usobiagari zigorra berretsi zieten.

Epailearen argudioak

Zigorra bi urtetik beherakoa denez, eta auzipetuek aurrekaririk ez dutenez, espetxeratzearen suspentsioa aurreikusten du Zigor Kodeak, 80. eta 81. artikuluetan; eta bi urteren buruan beste delituri egiten ez badute, zigorra barkatu egiten da. Hiru zigortuen defentsak abokatuak, Mikel Elortzak, zigorraren suspentsioa eskatu zuen joan den martxoaren 8an, legeak aipatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituztela arrazoituta.

Epaileak badu, hala ere, zigorra betearazteko aukera, beti ere akusatuek «arriskugarritasun kriminala» dutela arrazoitzen badu. Baina kasu honetan, zigorraren eteteko «lege baldintzak» ez dituztela betetzen argudiatu du Luis Piñana epaileak, fiskalaren txostenean oinarrituta, eta espetxeratzeko agindu du. Fiskalak «delituen izaeragatik» eta «alarma soziala sortzen dutelako» eskatu zuen akusatuek espetxe zigorra betetzea.



PABLO S. QUIZA

Maria Jesus Zumeta, Jon Mikel Gastañares eta Mikel Anjel Usobiaga, atzo Zarauzko Musika Plazan, atzean euren kasuari buruzko pankarta zutela.

Defentsako abokatuaren argibide eskaerari ez zion erantzun atzo epaileak. Gaur goizean bertan epailearen erabakiaren aurkako helegitea aurkeztuko du defentsak Donostiako Entzutegian.

«Legean oinarritu gabea»

AABen iritziz, «Entzutegi Nazionaleko doktrina salbuespenezkoa eta berezia Euskal Herriko auzitegiak kutsatzen» ari dela adierazten du «salbuespe-

nezko erabaki» honek. ABBek salatu zuten, «epai hau ez da normala, eta, gainera, politika espainiarraren mendeku-izaera adierazten du, ez da legean oinarritzen eta are gutxiago Justizian».

EUSKO JAURLARITZA

LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA
INGURUGIRO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO, VIVIENDA
Y MEDIO AMBIENTE

AGINDUA, 2001EKO APIRILAREN 23KOA, LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZEGUNEEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANARI HASIERAKO ONESPENA EMATEKO DENA.

Ondean argitaratzen den xedapena eman dut gaur:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planari hasierako onespena ematea, honako zuzenketa hauek sartuta:

- Erabileren matrizean eraikuntza (E3.1) ezabatu egiten da erabilera onargarri gisa EP1, EP2 eta EP3 zonetan.
- Valderejoko Parke Naturaleko Polledoko zingirak I. multzoan barne hartuko dira eta Olandina aintzira II. multzoan.

16.6. idatz-zatia:

Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian antolamendu-kategoriak aplikatzeko irizpideak ondokoak izango dira:

- Hasierako onarpenik gabeko garapen-plangintza (plan berezia, plan partziala) duen hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, Lurraldearen Arloko Planari egokituko zaio.
- Hasierako onarpena eman zaion garapen-plangintza duen gainerako hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, Lurraldearen Arloko Planak «hainbat jardura» gomendatzen ditu besterik gabe.

21.4. idatz-zatia:

Lurraldearen Arloko Plana onartzen den uneen hirigintzaren aldetik hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa behin betiko sailkatuta dauden lurzoruetan, 16.6. idatz-zatian adierazitako bi hipotesiei buruzko xehetasunak eranstean dira, hots:

- Hasierako onarpenik gabeko garapen-plangintza (plan berezia, plan partziala) duen hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, Lurraldearen Arloko Planari egokituko zaio.
 - Hasierako onarpena eman zaion garapen-plangintza duen gainerako hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, Lurraldearen Arloko Planaren xedapenak gomendotzat joko dira.
- Hirigintzaren aldetik urbanizaezin gisa sailkatuta dauden lurzoruei dagokienez, honako aldaketa hauek sartu behar dira:
- II. multzoko hezeguneei dagokienez, honako esaldi hau testutik kenduko da: hiri-lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak direnean izan ezik, kasu honetan gomendio hutsak baino ez baitira.
 - III. multzoko hezeguneei dagokienez, «xehetasun-azterlanak» kendu eta «azterlan zehatzak» ezarriko da bere orde.

17. kapituluko 1 eta 3. idatz-zatiak.

Bi idatz-zatietan Txingudiko salbuespena azaldu behar da.

- 22.3, 23.3 eta 23.4. idatz-zatiak ezabatu egingo dira.

2.- Agindu hau Euskal Herriko, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko eta Estatuko Aldizkari Ofizialetan argitaratzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan gehien irakurtzen diren arteko bi egunkarietan.

3.- Lurraldearen Arloko Plan hau jendaurrean jartzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

Epe horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren agiria, aztertze, honako lekuetan egongo da:

- Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza. Donostia-San Sebastián, 1. Vitoria-Gasteiz.
 - Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko Arabako Lurralde Ordezkaritza. Samaniego, 2. Vitoria-Gasteiz.
 - Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza. Gran Via, 85. Bilbao.
 - Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza. Andia, 13. Donostia-San Sebastian.
- 4.- Lurraldearen Arloko Plan hau Lurralde-Administrazio Publikoiei zor zaien entzunaldian jartzea, hilabeteko epean egokitatz dauzkaten ohar eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko apirilaren 23a.

LEGEA

Zigorra ez betetzeko baldintzak

Espainiako Zigor Kodeko 81. artikulua zehazten du zigortuek zein baldintza bete behar dituzten epaileak kartzelatzea bertan behera uzteko. Hiru dira baldintzak:

BI URTETIK BEHERA. Bete beharreko espetxe zigorrak bi urtetik beherakoa izan behar du. Zarauzko hiru zigortuen kasuan urtebetekoa da zigorra.

AURREKARIK EZ. Zigor aurrekaririk ez dute izan behar akusatuek. Hiruetako inork ez du aurrekaririk.

ISUNA BALEGO, ORDAINDU. Zigor ekonomikorik balego, zigor hori ordaintzea da hirugarren baldintza. Zumeta, Gastañares eta Usobiagari ez zioten diru zigorrik ezarri.